




TWINPARA



1981 EKAINA





# SARRERA

Ba dator, berriz ere, "TXINPARTAK" gure artera. Guraso eta irakasleen arteko zubi, gure kezka eta eztabaidak bideratzeko tresna izan nahi du.


Gabonetan, Olentzeroren subiletik sortu ziren lehenengo txinpartak eta orain, Ekainean, eguzkiaren garaipena ospatzeko egiten ditugun San Juan suetatik su eta gar datozkigu "TXINPARTA" berriak.

Lehenengo alean esaten genuen bezala, aldizkari hau tribuna irekia izan dadin nahi genuke. Bakarka, loturarik gabe badihardugu txinparta hutsetan gelditzeko arriskua dugu.

Ikastolak sorreran izan zuen sua hortxe dago eguneroko arazoan, inertziaren, errezeloan eta elkarrizketa faltaren hauspean estalirik. Hautsok astindu, bideak leundu, paretak bota, "sorgiñak erre" ditzagun, elkarrekin egin beharreko lan asko dugu eta.

Haurrek jaso dezaketen hezibiderik ederrena gure arteko elkarrizketa, ilusioa eta lan girca da.

Euskerak eta ikastolak oraindik ez dugu gailurrik lortu. Inoiz baino gehiago behar da guztion borondate ona eta lana. EZ ETSI!





PROGRAMA BERRITUAK: OINARRIZKO HEZIKETAREN ANTOLAKETA BERRIA.

1980. urteko Irailean bete ziren hamar urte O.H.O. ezarri zenetik Oinarrizko Heziketa Orokorra arautzen zuen legea Villar Palasi ministroaren izenari lotua gelditu zaigu gaur egun arte. Lege haren arabera 6 urtetik 14 urterainoko irakaskintza bateratzen zen, lehengo irakaskintza sistemaren akatsak gaindituz.

Aldaketa hark ere, aldaketa guztiek bezala, irakaskintza mundua hobetu nahi zuen. Oinarrizko Heziketa Orokor bat ziurtatu nahi zien haur guztiei. Bestalde, irakaskintza pertsonalizatzeko teknikak, etengabeko ebaluaketa, haurren sormena akuilatzea, irakasleen arteko koordinaketa, tutoria, inguruaren ezaguera, taldeko lana eta beti ere heziketa munduan helburu izango ditugun meta batzuk lortu nahi zituen.

Ezer lortu ez denik ez dugu esango. Lortu dira, bai, zenbait gauza irakasleen kontzientzia mailan, bederen. Hala ere, azterketa eta kritika ezin dira bazterrerara utzi. Norabide haiei jarraituz hamar urteetan ibili ondoren beste lege bat datorkigu orain egunero eta urteroko praktikak erakutsi dizkigun hutsuneak bete nahirik.

1981eko Urtarrilaren 9an "REAL DECRETO" bat argitaratu da. Lege honen markoan arautu beharko dugu aurrerantzean O.H.O.

Legea ez da goitik behera eta goizetik gauera etorri zaigun betebeharrak. Lege hori beste lan batzuetan oinarritzen da. Hor dago 1980eko Maiatzean "PROGRAMA BERRITUAK O.H.O. ean" izenarekin espezialistek egin zuten "Oinarrizko Dokumentoa".

Dokumento hori irakasle askoren eztabaida eta eritzietan oinarritua dago. Irakaskintzan ari garenok gure ikasleen onerako ari gara eta beti ere programa eta metodoen azterketan gabiltza.

Legeak dakarren aldaketa hau, beraz, behetik sentitzen den behar bati erantzutera dator.

A) Eta .... zeintzu dira aldaketak?

Labur esateko, puntu hauetan zehaztu daitezke:

- 1) Lehen, O.H.O. 2. ataletan zatitzen zen: 1. atala (1. 2. 3. 4. eta 5. maila) eta 2. atala (6. 7. eta 8. maila). Orain, 1. atal hori bitan banatzen da: 1. eta 2. maila oraindik aurrera 1. ZIKLOA izango dira eta 3. 4. eta 5. mailak ERDIKO ZIKLOA. 6. 7. eta 8. mailak GOIKO ZIKLOA deituko dira.
- 2) Lehen irakaslea maila baten egoten zen, gehienetan, eta umeak goragoko mailara bidaltzen zituen beste irakasleak har zitzan. Orain irakaslea ZIKLOKO IRAKASLEA izango da. Hau da, 1. mailan irakasle denak berak eramango ditu umeak 2. maila buka dezaten arte. Berdin, 3. mailan hasten denak 5.era arte eman beharko luke talde berean. Goiko zikloan arlo bakoitzeko espezialistak sartzen dira eta gaiak orain bezalatsu emango dira. Ziklo hontan ere irakasle gehiegi ebitatu nahi dira eta, ahal izanik, Natur-Zientzia eta Matematika batek ematea gomendatzen da eta berdin Geografia eta Historia ere. Irakasleak umeekin eduki behar duen harremana indartu nahi da, duda gabe.

TAL-  
TAL-  
2 TAL-  
3 ZIKLO  
KLO KLO  
KLO




- 3) Lehen, mailaz-maila egiten zen umearen promozioa edo goiko kurtsora pausoa. Normalki, gainera, ez zen onartzen kurtsu errepikatzerik lehen kurtsuetan. Orain, oster, ziklo bakoitzean lortu beharreko guttiengoak gaintitzen ez badira ezin da umea aurrera pasatu. Notak ere ziklo bakoitza bukatzerakoan jarriko dira.
- 4) Eskolaurre eta lehen zikloaren koordinaketa eskatzen da, 1. zikloa Eskolaurrearen jarraipen izan dadin.

Lau puntu hoietan dago lege berriak dakarren aldaketaren funtsa. Arrazoiak eta xehetasunak emateak lan luze batera eramango gintuzke eta, nahi duenak, aldizkari espezializatuétara jo lezake. Dena den, aldaketa honen bizpairu arrazoi emango ditugu.

B) Aldaketaren zenbait arrazoi.

- 1) Hiru zikloetan egiten den banaketak arrazoi psikopedagogikoak ditu, lehenik. Umeak 7 urte egiten dituenean irakurketa eta idazketa menderatu behar ditu (2. maila bukatzerakoan) eta baita kalkuloaren oinarriak ere. Psikologoek diotenez, izan ere, adin hontan egiten da umea pentsamentu logikokongretoaren jabe. Tresna hauek menderatzen ez dituen bitartean ezingo du aurrera pauso egokirik eman. Gai instrumental hoiek (irakurketa, idazketa, kalkuloa) ongi menderatu gabe aurrera jo dutenen artean gero eta hutsune handiagoak ikusten ditugu, ikusi ere. Bestalde, irakurketa idazketa eta kalkuloaren lehen pausok nolabait Eskolaurrean ematen direnez, argi ikusten da Eskolaurre eta Lehen Zikloak behar duten lotura ere.



3. Zikloaren hasiera 6. mailan jartzen da. 11-12 urtetan gertatzen da, izan ere, pentsamolde logiko-formal edo abstraktoaren sorrera. Hau da, preadoleszentziarekin batera Elgoibarko irakasleon ustez 6. maila bera azkarregi da, akaso, 3. zikloaren dinamikan sartzeko. Esperientziak erakusten digunez, 6. mailaren erdialdi edo bukaera arte umea ez da 3. zikloak eskatzen duen lan egiteko eran sartzeko. Horregatik, guk beste irtenbide bat proposatuko genuke, agian:

- 1 - 2 → Lehen zikloa
- 3 - 4 > Erdiko zikloa
- 5 - 6 >
- 7 - 8 → Goiko zikloa

- 2) Zikloko irakaslearekin, irakaslea urte bat baino gehiago gela berean egotearekin umeak hobeto ezagutzea, guttiengoak lor ditzan ziurtatzea, umearen heldutasun pausok jarraitzea etabar lortzen dira. Lehen ere egin izan dugu hori kasu batzutan, irakasleak premia



ikusirik. Oraindik aurrera hori izango da norma.

- 3) Promozioa umea kurtsoz pasatzea da. Orain legeak ziklo bakoitza bukatzean umeak jakin beharreko guttiengoak zehaztuzten ditu. Hoiiek gaintitu gabe ez dago goragoko ziklora pasatzerik. Honekin irakaskintza umearen zerbitzutan jarri nahi da. Zimendu eskasekin etxerik jaso ezin denez ezin ditugu umeak gora bidali beharrezko teknikez jantzi orduko. Kasu normalez ari gara, noski.

Honenbestez lege berriok dakarten aldaketaren funtsa ulertzen dela uste dugu.

Datorren kurtsoan (1981-82) lehen zikloa martxan jarri behar da. Hurrengoan (1982-83) ERDIKO ZIKLOA eta (1983-84)an GOIKO ZIKLOA.

---

#### LOS PROGRAMAS RENOVADOS: NUEVA ORGANIZACION DE LA ENSEÑANZA GENERAL BASICA.

En Septiembre de 1.980 se cumplieron los diez años del establecimiento de la E.G.B. La ley que regulaba la E.G.B. ha quedado unida en el recuerdo al nombre del ministro Villar Palasi. Con aquella ley se pretendía unificar la enseñanza desde los 6 hasta los 14 años, tratando de superar los defectos del sistema anterior.

Aquel cambio pretendía, como todos los cambios, mejorar el mundo de la enseñanza. En efecto, se quería asegurar una Educación General Básica a todos los niños en edad escolar. Pretendía, además, una mejora de la enseñanza en aspectos tales como personalización y socialización, evaluación continua, fomento de la creatividad, acción coordinada de los profesores, importancia de la tutoría y otros que siempre figurarán como metas hacia donde tender en el mundo de la educación.

No es que no se haya logrado ninguno de los objetivos. Efectivamente se ha conseguido bastante, al menos a nivel de concienciación del profesorado. Aún así, siempre es sana y necesaria la investigación y el espíritu crítico.

Después de haber caminado durante diez años siguiendo aquellas orientaciones, la nueva ley viene a responder a las inquietudes y convicciones que se han ido forjando en el trabajo contrastado de cada día y año.

El pasado mes de Enero de 1.981 se ha publicado un REAL DECRETO por el que deberá regirse en adelante la organización de la E.G.B. No es una ley que nos viene de arriba abajo y de la noche a la mañana sino que se basa en otros trabajos e investigaciones anteriores. Allí está, por ejemplo, el documento base que con el título de "Los programas renovados en la E.G.B." publicaron los especialistas en el tema de la educación. Es un documento basado en el diálogo y contraste de pareceres de muchos educadores.



Los profesionales de la enseñanza andamos y debemos andar siempre en pes de una mayor calidad de la enseñanza. No dudamos de que el nuevo cambio que se propone por ley es respuesta a una necesidad sentida en el mundo de la educación.

A) Y ... cuáles son los cambios?

Resumiendo, se pueden concretar en los siguientes puntos:

- 1) Hasta ahora la E.G.B. se dividía en dps etapas: 1ª etapa (1º, 2º, 3º, 4º y 5º) y 2ª etapa (6º, 7º y 8º). Ahora la 1ª etapa se divide, a su vez, en otros dos ciclos: 1º y 2º serán en adelante el CICLO INICIAL y 3º, 4º y 5º EL CICLO MEDIO. 6º, 7º y 8º constituirán EL CICLO SUPERIOR.

- 2) Si hasta ahora el profesor era profesor de curso simplemente y al curso siguiente los alumnos pasaban a manos de otro profesor, ahora tenemos la figura del PROFESOR DE CICLO. De modo que el maestro o andereño que se haga cargo de un curso de 1º, por ejemplo, tendrá que continuar con el grupo hasta que terminen el ciclo, es decir 2º.

De igual manera, el que se haga cargo de un 3er curso continuará hasta el 5º curso con el mismo grupo.

En el CICLO SUPERIOR los profesores son especialistas en temas y el planteamiento será similar al vigente. Es de destacar que también en el CICLO SUPERIOR se aconseja que no haya exceso de profesores, de modo que, por ejemplo, sea el mismo profesor el de Matemáticas y Ciencias Naturales y el de Geografía e Historia. Con ello se pretende, sin duda, fomentar la mayor relación del profesor con los alumnos.

- 3) Hasta ahora la promoción o paso a curso superior se hacía automáticamente con el criterio dominante de la edad. No se admitía que se repitiera el curso, de ordinario. Ahora, en cambio, no puede promocionar el alumno que no haya superado los niveles básicos de referencia, los mínimos exigibles al final de cada ciclo. Las calificaciones figurarán en el libro de escolaridad, al terminar cada ciclo.
- 4) Se pide programación común o gran coordinación entre Preescolar y CICLO INICIAL, de modo que el ciclo INICIAL sea una continuidad al programa de la educación en preescolar.

Estos 4 puntos recogen lo más fundamental que supone el cambio con esta ley. Entrar en razonamientos y detalles sería demasiado prolijo. Quien quisiera informarse más al detalle puede recurrir a las revistas especializadas.

Daremos, con todo, algunas razones que justifican esta pequeña reforma.







B) Algunas razones para el cambio

- 1) La división en 3 ciclos se justifica, en primer lugar por razones sicopedagógicas. El niño debe dominar a los 7 años la lectura, escritura y los ejercicios más simples de cálculo. En efecto, dicen los psicólogos que a esta edad el niño se abre al mundo del pensamiento lógico concreto. Mientras no adquiera el dominio de esos instrumentos de trabajo, difícilmente podrá progresar. Se observa, de hecho, grandes retrasos y lagunas en quienes han promocionado o pasado de curso sin haber adquirido el dominio en los temas básicos llamados instrumentales (lectura, escritura, cálculo). Por otra parte, dado que el inicio en esas técnicas viene dado desde preescolar, se deduce la necesidad de la coordinación entre Preescolar y Ciclo inicial.

El 6º curso marca el inicio del CICLO SUPERIOR. En efecto, los psicólogos sitúan entre los 11-12 años el comienzo del pensamiento lógico-formal o abstracto. Es la fase de la preadolescencia. En opinión del profesorado de Elgóibar el 6º curso es, acaso, demasiado pronto para que el niño entre en la dinámica del CICLO SUPERIOR. La experiencia nos enseña, en efecto, que hasta mediados o fin del 6º curso el alumno no ha dado aún el paso que supone el ciclo superior. Por ello nosotros propondremos, tal vez otra salida:



- 2) Con el profesor de ciclo se conseguirá, sin duda, un mejor conocimiento de los niños por parte del profesor, un seguimiento más continuo y prolongado en el camino de su madurez, conseguir que supere los mínimos exigibles etc. Esto no es del todo nuevo. También los hemos solido hacer antes, a requerimiento de los mismos profesores. En adelante esa será la norma.
- 3) Por lo que respecta a la promoción, decir que la ley fija los números exigibles al término de cada ciclo. No habrá promoción caso de no superar dichos mínimos. Con ello se pretende poner la enseñanza al servicio del niño. Una casa con cimientos endebles, se caerá. Del mismo modo, no podemos dejar que pasen a otro ciclo quienes no dominen las técnicas y conocimientos necesarios para el trabajo. Estamos hablando de casos normales, por supuesto. Creemos que con lo expuesto se comprenderá en qué consiste el cambio.

Para terminar, decir que el próximo curso (1981-82) deberá ponerse en marcha el CICLO INICIAL; el siguiente 1982-83, el CICLO MEDIO y el curso 1983-84 el CICLO SUPERIOR.



# -BERTSOLARI ESKOLA-

Martxoaren 28an omenaldi bat egin zion Elgoibarko herriak "Etxegiñari. Udaletxearen laguntzarekin "Elgoibarko Izarra" elkarteak antolatu zuen jaialdi hura arrakasta handiz ospatu zen. Aretoa leporaino bete zen, behinik behin.

Herritar bertsolari bat, hainbeste urtetan Anta Ageda taldeko aurrelari izan den omentzea aipagarria bada, bazegoen beste motibo bat ere: "Etxegiña" I. bertso paper lehiaketaren epaia eman zuen mahaiak jaialdi berean.

Esan beharra dago izugarritzko bertso pila (berreunetik gora) jaso zirela "Elgoibarko Izarra"ren bulegoan.

1. maila 12 urte artekoak osatzen zuten.

2. maila 13-14 urtekoak

3. maila 15-18 urte bitartekoak

4. maila 18tik gorakoak

Lehen 3 mailak herrikoentzatz ziren bakarrik eta laugarrena Euskal Herri guztira irekia. Hala ere, azken maila hontako lanak 4 izan ziren, soilik. Lehen 2 mailako lanak ikastolakoak ziren denak. 3. mailakoak ere ikastolatik pasatu eta institutoan ari direnak.

Sarrituen bertsoak entzuteko aukera izan genuen jaialdian bertan eta argitaratu ere egin dira zenbait aldizkari eta egunkaritan. Lehen bi mailetan bertso egoki asko aurkitu genuen eta, horregatik, I. saritik aparte maila bakoitzean lau aipamen egitea erabaki zuen mahaiak. Gure aldizkari hontan argitaratzen ditugu, merezi dutelakoan. Hemen dihoakizue:

1. mailako txapeldun: Endika Irigoien.

Gaia: Taberna

Moskorra

I

Hikamarero hori  
etor hadi hona  
ta eman iezadak  
baso ardo ona  
diruaz ez kezkatu  
ez da zoriona  
ez pentsa eta ez duda  
ta eman gizona  
KAMAREROA IV  
Nazkagarri ta zikin  
baita higuigarri  
joan hadi hemendik  
ta kalean jarri  
ardoa edan eta  
gehioren egarri  
hurrengokoan behintzat  
dirua ekarri

Kamareroa

II

Hi horko moskor hori  
Hemen ez da ardorik  
baina sobra ba dago  
gizon moskortirik  
ez da etorri behar  
inoz ere goitik  
esateko nolako  
moskorra daukan hik.

MOSKORRA V

Ekar ezak ardoa  
denentzat pakea  
jadanik atera zait  
burutikan kea  
nik ba dakit naizeña  
bai ardozalea  
baita apreziatzen dut  
burrukako artea

Moskorra

III

Zu izaten bazara  
bai kamarerua  
ni izan naiz Erron  
beti Aita Santua  
zuk hutsikan daukazu  
hor goiko burua  
utzi berrikerari  
ta eman dirua  
KAMAREROA VI  
Emangizut ardoa  
ez beldurragaitik  
taberna honetatik  
joatekotan baizik  
nik eztabaidarako  
ez bait dut gogorik  
joan hadi, mesedez  
lehengoko bidetik



I. MAILAKO AIPAMENAK

FEDERIKO ETA MARI: Mirari Astigarraga.

Federiko eta Mari  
ditugu atzian  
poza da erregina  
hauen bihotzian  
maitemindurik daude  
eternidadean  
bikote hoberikan  
ez dago ludian.

-----  
Pasa da denbora ta  
urtiak ugari  
arpegiko ximurak  
datoz Mariari  
kasa egin behar da  
Jaunaren hitzari  
laster izanen dira  
xomorro janari.

-----  
Penaz ezin egonik  
Federiko hil zan  
Mariaren bihotzak  
pena ezin jasan  
enterraixuko meza  
egon zan elizan  
halako enterraixurik  
inoiz ez da izan.

EUSKALERRIKO BASOA: Ane Zabala.

Begiak maikoz busti zaizkit  
ta estutu eztarria  
egia ikusi dudanean  
hau basoaren zoria!  
zuhaitza moztu, txoria mindu  
uxatu katagorria  
animaliak beldurka dabiltz  
odola bait da gorria.

-----  
Gaur egun ez da lehenbizi zena,  
gaur ezin jasan izotza  
negargarria oingo itxura  
industriaren morroitza  
ez du gutxitzat ez kutsadura.  
jaboian bezala pitsa  
lehengo zuhaitzak ez dira hemen  
ba dugu larri bizitza.

-----  
Geure basoa salba dezagun  
jarri daigula ahalegina  
animaliak poztu daitezen  
joan dadin berriz artzaina  
eman bihotza, eman anima,  
borroka biziak haina  
ta ikusi zein zoragarri den  
gure baso maite fina.

NATURA: Jon Peli Uriñen  
Belar berdea ikus daiteke  
Elgoibarkomendietan  
txoritxo kantariak dabilta  
eguneroko gauzetan  
hori oso eder agertzen da  
esaten dizut benetan  
ahitasuna suma dezaket  
mendi goiko txorietan.

-----  
Egurats freskoak ematen dit  
arnas hartzeko gogoa  
oso alaia izan da hemen  
igaro dugun gaurkoa  
gure bizitzan hola egonez  
gorputza dago zindoa  
niretzat handi eta ederra  
gauza hauen balioa.

-----  
Lehenagoko denboraletan  
maiteago zen natura  
oraingo zuhaitzen enbor luzez  
egiten digute zura  
baita esan beharrekoa da  
kutsatzen dutela ura  
azkenean galdu egingo da  
naturaren esangura.

4 URTE HAROAK: Abel Irizar.

Zerutik behera dator  
oraintxe elurra  
kanpora irtetzeko  
ba dut nik beldurra  
baserria zaintzeko  
dugu guk txakurra  
hura mantentzeko ere  
behar da hezurra.

Negua joan da eta  
oin udaberria  
poz-pezik dago hemen  
gaur gure herria  
hasi dira egiten  
pistina berria  
hau dugu urte haroa  
bai zoragarria.

-----  
Udia haldu da ta  
denbora beroa  
preskatu bat hartzeko  
ederra giroa  
itsas aldera jendia  
ugari dihoa  
ni oporrak pasatzera  
mendira nihoa.

-----  
Udazkeraz haizea  
ba dabil ugari  
zuhaitz orri guztiak  
egin dira erori  
ai! tristura handia  
ematen dit neri  
geroztik datoz tximist  
trumoi eta curi.



HONDARTZAN: Nerea Lariz.

Amonak ari dira  
 eguzkia hartzen  
 tripaz gora jarririk  
 ondo morenetzen  
 neska bat da ondoan  
 bikinia kentzen  
 laster hasi dira, bai  
 hura kritikatzeko.  
 Oraingo neska hauek  
 lotsa dute gaitzen  
 gure garaian ez zen  
 gauza hau topatzen  
 orkatiletaraino  
 ginen gu tapatzen  
 ta orain jende artean  
 estriptis egiten  
 Baina amona Mari  
 ez zaigu harritzen  
 gauza naturala da  
 txikitatik ohitzen  
 guk erropaz beterik  
 ez dugu ezer lortzen  
 berandu samar da ta  
 gaude gu ximurtzen.  
 Zoraturik al zaude  
 emakume zerri?  
 burutikan eginik  
 zaigu Mari jarri  
 ikusi nahi zintuzket  
 begira elkarri  
 zu asto zaharren pare,  
 hura zaldi berri.

BASOKO TXORIA: Beatriz Ortueta.

Txori bat ikusten dut  
 zuhaitz honetatik  
 hega ta hega doa  
 zeru zabaletik  
 urrutiratzen doa  
 ezin ikusi nik  
 zuhaitzetik jaitsita  
 ba noa atzetik.  
 Txoria beheruntz doa  
 loreen ondotik  
 lurrean geratzen da  
 hegoa urraturik  
 besoetan hartuta  
 ba noa hemendik  
 etxera eramán eta  
 sendatuko dut nik.  
 Ia etxean gaude  
 ta hemen sarturik  
 aitona etortzen da  
 galderak eginik;  
 esplikazioak eman  
 berak ulertzen dit  
 berak sendatuko du  
 txoria oso osorik.  
 Txoria sendatu da  
 gauk bertan goizetik  
 basora eramaten dut  
 bide luze hortatik;  
 txoriak hegan nahi du  
 zeru zabaletik  
 kanpoanuzten dut han  
 hegan joan dadin.

"ETXEGIÑA": Alizia Txurruka.

Orain hasi behar naiz  
 lau bertso egiten  
 ez naiz bertsolaria  
 baina ez naiz beldurtzen  
 horren zaila zenikan  
 ez nuen pentsatzen  
 nahikoa lan ba dut nik  
 gizon hau agurtzen.  
 Egoibarren ba dugu  
 gizon atsegina  
 herria alaitutzen  
 egin du ahalegina  
 jendeak maitatzen du  
 bere bihotz fina  
 gizon honen izona  
 da, ba, Etxegiña.  
 Bertsolari gizona  
 hementxe azaldu  
 berrogeita hamalau  
 urtetan abestu  
 Abe Maria eder bat  
 berak du asmatu  
 entierro guztietan  
 eiten da kantatu.  
 Gizon hau saiatu da  
 euskara zabaltzen  
 horregatikan dugu  
 hainbeste maitatzen  
 omenaldi eder bat  
 diogu eskeintzen  
 ahaleginduko gara  
 denok hau goratzen.

BERTSOLARITZA: Iñaki Kortabitarte.

Arkatza ta papera  
 eskua buruan  
 ni ona ez naiz baina  
 bertsoa barruan  
 asko pentsa beharra  
 ta ezer ez zentzuan  
 honi jarraitu behar  
 euskal hesparruan.  
 Bertso trebetasuna  
 da Euskalerrian  
 gizon trebe honentzat  
 bere omenaldian  
 ohitura ez da izango  
 ondoko Espainian  
 hemen bertsolari bat  
 daukagu atarian.  
 Bertso txapelketetan  
 bertsoa abestean  
 bertsolari guztiek  
 bihotza ahotsean  
 gizon guztiak alai  
 bertsoa entzutean  
 bertsolariak gogoz  
 bere solasean.

Bertsolariak dira  
 gatza ta mamia  
 Euskalerrientzat  
 da bizigarria  
 ohitura guztietan  
 du bere partia  
 bertsolariak gabe  
 tristerik bizia

Bertsolariak dira  
 herrian ahotsa  
 hauen jaioterria  
 herriko enparantza  
 hauek abesten zuten  
 herriarñ lotsa  
 herriak izango du  
 bertsoaren hatsa.



## 2. MAILAKO TXAPELDUN:Aintzane Iriondo.

### IKASTOLAKO GELA NAGUSIARI

#### I

Ikastolan gabiltza  
goiz ta arratsaldean  
hogeita hamalau gera  
gela nagusian  
pipar egiten dugu  
ahal dugun guztian  
konturatuko al gara  
egun n batian

-----

#### II

Asko ikasi behar  
ta nik gogo gutxi  
aspalditik burua  
ezin dut nik hezi  
maisuengandik gabiz  
gu beti ihesi  
kalian ibiltzeko  
prest gaude gu beti.

#### III

Nik ez daukat zenbaitek  
dun hainbeste buru  
nere inguruan ez da  
hainbeste liburu  
ni baino hobeagoak  
dabilta inguru  
gaurko notetan ere  
azkena segurua.

-----

#### IV


Alfonso, Inasio  
Beni ta Kristina  
Andres, Iñaki, Sebas  
Regina ta Ana;  
bederatzi hauekin  
osatzen da dena  
aurten bukatzen dugu  
azkeneko lana.

-----

Ikus daitekeenez, duten motiborako bertso nahiko onak eta ederrak ere ba daude artean. Baina, hasi dugun lan hau egun bateko txapligo hotsa izango litzateke. Lehiaketa hori lan trinko baten hasierako bultzada bezala planteatu genuen eta "Bertsolari Eskola"ren hasiera bezala.

Hamairu edo hamalau ume dira iadanik izena eman dutenak eta eskola hori martxan dago. Lehen ekintza bezala, Maiatzaren 22an Eskoriatza ondoko Apozaga herritxora joan ginen talde osoa "Almen" eskolako bertsolari gaztetxoen klase bat ikustera. Astero biltzen dira zenbait ume eta gaztetxo, bertsozale batzuen laguntzarekin saioak egitera. Harriturik utzi gintuzten, ume eta nagusi, lortu duten erraztasunagatik. Donostian Maiatzaren 9an ospatu zen bertsolari gaztetxoen lehiaketako txapelkunak hantxe zeuden. Noski, han urteetan zehar egindako lan eder bat ikusten zen.

Elgoibarko Izarraren asmoa ere umeak eta herria bertsozaletzea da eta, hortarako lanean dihardu. Bertsolari Eskola martxan dago 12 bat umekin eta hilaren 20an Elgoibar eta Mendaron sortu edo bizi diren bertsolarien txapelketa izango da.





## AMA HIZKUNTZA HEZIKETAN

Umearen bizitzako lehen urteak dira garrantzitsuenak bere hezibide aldetik eta, beragan egiten diren influentziak, betirako eragina dute bere garapenean. Ama hizkuntzaren lorpenak neurtuko du bere hizketaren aberastasun edo pobretasuna.

Psikologiaren aldetik, umeak motibapen sakonen arabera jokatzeko du, ama hizkuntza menderatzeko ahaleginetan. Izan ere, hizkuntza hori ikusten du bere bizitzako beharrak betetzeko bitarteko ekonomikoena eta eraginkorra ere; hots, inguruan jokatu eta bertan integratzeko beharra, bere nortasuna finkatzeko beharra ...


Aitzitik, bigarren hizkuntza bat ikasten hasten den umearen motibapenak azalekoak dira eta, askotan, ezarritako obligazio batetan oinarritzen dira. Honek inhibizioak sortzen ditu, eskolako martxan gogorik ez hori nabari daitekularik.

Ikertzaile askok (W.F. Leopold, Frances K., Penfield, etab.) bi hizkuntzak ikasten hasteko ordua jaiotordua bera dela diote. Elebitasunaren kasoa interferentzien arriskua dagoen ala ez, oraindik ezin dela garrantzia osoarekin esan, uste dugu. Dena den, ama hizkuntza 4-5 urtekin fixatzen denez, normalean, 4. urtea dela dirudi bigarren hizkuntza ikasten hasteko adin gomendagarria. Izan ere, 4-9 bitarteko urte hoiak dira bigarren hizkuntzaren ikasketarako egokienak, elebitasun baten bidean.

Badakigu horrelako lan batek ikasketarako egoera dinamiko bat behar duela, ondorengo baldintzekin:

- Etengabeko jarduna
- " errebortzaketa
- " motibapena

Proba dezagun!





## LA LENGUA MATERNA EN LA EDUCACION

Los primeros años de vida del niño son los más importantes desde el punto de vista de su formación, y las influencias que obren sobre él, tendrán sobre su desenvolvimiento un efecto permanente. La riqueza o pobreza de su lenguaje dependerán del mayor o menor éxito con que haya llevado a cabo la difícil tarea de la adquisición de su lengua materna.

Desde un plano psicológico, en sus esfuerzos por dominar poco a poco su lengua materna, el niño obedece a motivaciones profundas. Esa lengua se le impone como medio más económico y más eficaz para satisfacer las funciones vitales: necesidad de actuar sobre el medio y de integrarse en él, necesidad de afirmarse como individuo ...


Por el contrario, las motivaciones del niño que emprende la adquisición de una segunda lengua, son superficiales y hasta en muchos casos precedentes de la mera obligación impuesta, produciéndose entonces en él profundas inhibiciones que repercuten de forma directa en los aprendizajes escolares.

A pesar de que diferentes estudiosos (W.F. Leopold, Frances L., Penfield, etc.) consideren que la edad ideal para el inicio de las dos lenguas, sea la del mismo nacimiento, con respecto a que exista o no peligro de interferencia recíproca en el caso de bilingüismo, cabría objetar que no existe garantía hasta el momento científicamente comprobada, y dado que la primera lengua normalmente queda estabilizada a la edad de 4 ó 5 años, parece aconsejable el 4º año como edad recomendada para la iniciación de una segunda lengua, ya que los años comprendidos entre los 4-9 se consideran notablemente favorables y así con el aprendizaje gradual de esta segunda lengua se termine en un bilingüismo en el niño.

Una tarea así somos conscientes de que supone una situación siempre dinámica de adquisición cuyos términos esenciales son:

- actividad permanente
- refuerzo            "
- motivación         "

Vamos a intentarlo!!





EGUNEROKO GAUZAK

-Puf chica ya he llevado a los crios a la ikastola

-Yo voy ahora a llevar al pequeño

-Agur Patxi, ikastolara ? ze ongi!

-Hasta luego, ya nos veremos.....

-Vaya gol que metió


-Si hombre fué de ordago

-aita quiero mear

-nola esaten da?

-pixa nahi dut

-joan txokora eta egin. A mi me gusto mas el otro.....



-----  
-Esan egunon Ander

-Ez du gau ona pasatu...bueno te dire en castellano, que no ha pasado buena noche y no está muy santo.

-berdin da

-bueno adios , agur Ander.

-----  
-Ha sido gordo ¿ eh?

-ama ura

-hartu, kontuz basoarekin !


-yo no se como ha podido pasar eso

-aita ura

-orain bertan edan duzu barren?

-berdin da gehiago nahi dut

-dalo tu que estas mas cerca



-----  
-Me han dicho que la Sonchi un niño  
Unai etorri hona zertan zabilta  
putzutun ?

-niño? ella queria niña no?

-a mi niño me dijeron. Unai etortzeko

-Miren zu ere bai. A mi no me importa-  
ria, total.....

-ama vamos

-nola esan duzu?

-guazeneo

-estos crios cada vez hablan menos en  
euskera, no se lo que hacer

-ya sabes la televisión.....

-yo ya los digo que entre los amigos hablen en euskera pero son mas  
descarados que la puerta del sol.

-guazen Unai, bueno hasta luego

-¿Aita que hora es?

-Joten ba diat zañlastada bat!

-¿porqué?

-¿porque?¿porque?ez al dakik  
euskaraz ala zer?

-zuk hitzegiten duzu ba?

-nik? ba eh ez dakitenekin

-bai bai

-ez ala?

-beno beno zuk esaten baduzu!





Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page. The text is scattered across the right half of the page and is too light to read accurately.